



Ikasleendako diru-laguntzak

- **TARIFA SOZIALA.** Tarifa soziala izango dute Oinarrizko Errenta/Etxebizitza gastuetarako diru-sarrera osagarria edo Gizarte Larrialdietarako Laguntzen onuradun diren pertsonen. Horretarako, nahikoa izango dute Euskaltegian agiria aurkeztea. Aipatutako gizarte-laguntzarik ez dutenek tarifa soziala eskatu nahi izanez gero, Udaleko Gizarte Ongizate Zerbitzura jo beharko dute, eta beharrezkoak diren izapideei ekin. Onuradunek matrikularen % 40 ordainduko dute. Kurtso-amaieran, ordaindutako kopuru osoa itzuliko zaie.
- **BEKA.** Beka-eskaria egiteko, etxeke bizikide-kopurua kontuan hartuta, gehienez honako diru-sarrera garbia (likidazio-oinarria) onartuko da:

Bizikide-kopurua	Diru-sarrera garbia	Bizikide-kopurua	Diru-sarrera garbia
1	10.668,00 €	4	27.069,00 €
2	17.377,00 €	5	30.717,00 €
3	22.820,00 €	6	34.241,00 €

Baremo horren barruan egonez gero, ikasleak matrikularen erdia ordainduko du, eta honako agiriak aurkeztuko 2016.10.31rako:

1. Matrikularen ordainagiria.
2. 2015eko errenta-deklarazioaren kopia edo egin ez izanaren zergatia adierazten duen ziurtagiria.
3. Bizikidetzatza-agiria.

Kurtso-amaieran, ordaindutakoaren erdia itzuliko zaio ikasleari.

- **FAMILIA BEREKO KIDEAK.** Elkarrekin bizi diren familia bereko 2 lagunek izena emanez gero, 1'5 matrikula ordainduko dute; 3k emanez gero, berriz, 2 matrikula. Horretarako, Idazkaritzara jo beharko dute ordaindu beharreko kopurua zehazteko. Bestalde, 2016.10.31 baino lehen ekarri beharko dituzte ordainagiriak eta bizikidetzatza-agiria.
- **ERRETIRATUAK eta FAMILIA UGARIAK.** Matrikularen ordainagiriarekin batera, honako agiriak aurkeztu beharko dituzte urriaren 31rako: familia ugarietako kideek, familia ugarien txartela; eta erretiratuek, pentsionista-txartela. Kurtso-amaieran, ordaindutakoaren % 60 itzuliko zaie.
- **LANGABETUAK:** Ikasturte hasieran, matrikularen erdia ordainduko dute, eta, amaieran, Langabetuendako diru-laguntzak dokumentuan zehaztutako diru-itzulketa izango dute.
- **IKASLEAK:** Matrikularen ordainagiriarekin batera, Ikasle-txartela aurkeztu beharko dute. Ikasturte amaieran, ordaindutakoaren erdia itzuliko zaie.
- Gainerako ikasleei, ikasturte-amaieran, ordaindutakoaren % 25 itzuliko zaie.

Diru-laguntza hauek jasotzeko, ezinbestekoa izango da Bergaran erroldatuta egotea, ikasturtea amaitzea eta %85eko asistentzia betetzea. Justifikatu nahiz justifikatu gabeko hutsegiteak gainerako %15ean sartuko dira. Itzuli beharreko kopurua aurrekontuetan esleitutakoa baino altuagoa izanez gero, banaketa proportzionala egingo da.